

APIRILAK 28
LAN OSASUNAREN
NAZIOARTEKO EGUNA



LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA

Lan istripuen ondorioz izandako hildako kopuruen estatistikek Europako Erkidegoko lehendabiziko postuetan jartzen gaituzte. Urtero ehun bat pertsona hiltzen dira beren lantokietan eta estatistika hauei gaixotasun profesionalen ondorioz hiltzen direnak ere gehitu beharko lirateke. Hauek ahazten badira ere, edo baja arrunt bezala kontabilizatzen badira ere, urtero ehunka baja sortzen baitituzte. Perfil arruntena, ondokoa da: 30 urtetik beherako gizonezkoa, lan esperientzia eta formaziorik gabekoa, aldi baterako lanpostuan peoi gisa eraikuntza edota metalgintzan aritzen dena.

Ezaugarri hauek betetzen ez ditugunok ez gaude arriskutik kanpo. Karga desegokien erabilera, postura txarrak, mugimendu errepikakorak, toxikoak, zarata...eta gero eta gehiago lan estresa eta jazarpenak, edozein langile gaixotasun ezberdin eta arazo fisiko nahiz psikikoak izatera eramaten gaituzte. Eta honen guztiaren onena eta txarrena, neurri jakin batean, prebentzioaren gizarte kultura batekin saihestu daitekeela da. Ez gabiltza ezagutza batzuetaz soilik hitz egiten, bizitzeko beste era bat osatzen duten jarreraren eta eguneroko ohituren barneratzeaz dihardugu.

Eskola da era planifikatu eta sistematiko batean edonorekin esku hartu beharreko lehendabiziko tokia. Beste inguruko lurraldeetan egiten den bezala, Lehen Hezkuntzatik hasita segurtasun eta prebentzioari buruzko kontzeptu eta irakaskuntza espezifikoak eman beharko lirateke. Prebentzioari buruzko kontzeptu eta oinarriko ereduak eremu ezberdinen bitartez zeharka sartzea izango litzateke helburua. Gure ikaslerian hazi hau ereitea lortzen badugu, beraien etorkizuneko lanetan kanpoko inposiziorik gabe auto babeserako neurriak har ditzaten lortuko dugu. Kontrolatu gabeko arriskuak identifikatzen, jakinarazten edota salatzen jakingo dute, eta saihestu litekeen ezbehar bat edota beraien osasunerako kaltegarri direnak ekiditeko prebentzio neurriak exijituko dituzte. Segurua den lanpostu bat eskatzearen burututako kaleratze desegokiak ekidin eta aurre egiteko formazio eta errekursoak izango dituzte. Eta noski beraien etorkizuneko osasun eta bizitza kalitatearen hobekuntzan lagunduko dugu.

Ondoren aurkezten dizkizuegun aktibitateak, prebentzioa lantzeko ideiak besterik ez dira. Azken finean prebentzioa ohetik jaikitzen garenetik ohera bueltatu arte egiten dugu: euritik babesteko aterkia hartzea erabakitzen dugunean edota eskularruak hotza egiten duelako edo autoan segurtasun uhala jartzen dugunean, kaskoa bizikletan edo motorrean... egoera guzti hauetan prebentzioa egiten ari gara.

Aktibitate hauen helburu nagusia ikasleek kontzientzia har dezaten da, etorkizunean lan munduan sartzen direnean arduraz eta zentzuz jokatzeko gaitasuna lor dezaten.

ABIAPUNTUA

Unitate hau apirilaren 28an, Segurtasun eta Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuz egin dezakegu, eskolako ebakuazioa egin behar denean edo arrisku egoera bat sortzen denean.

HELBURU OROKORRA

· Laneko arriskuen prebentzioaz kontzientzia hartu eta hausnartzea, egoerak aztertuz, aurreiritziak eta ohitura edota jokaera desegokiak aldatzeko eta prebentzio kultura sortzeko.

HELBURU DIDAKTIKOAK

- Laneko arriskuei buruz hausnartzea, arrisku egoerak identifikatuz, kontzientzia hartzeko.
- Etxean, gelan zein aisialdian suertatu daitezkeen arriskutsuak diren egoerak identifikatzea, hauek ezagutuz, ikasleei horrelakorik gerta ez dakien.
- Etxean, gelan zein denbora librean dauden edo erabiltzen diren objektu eta produktuen arriskuak identifikatzea prebenitzeko moduak ikasteko eta osasuna zintzeko.
- Existitzen diren segurtasun seinaleak ezagutzea, hauek errekonozituz modu egokian erabiltzeko.
- Larrialdi eta ebakuazio planak ezagutzea seinale eta elementu guztiak errekonozituz modu egokian erabiltzeko.
- Norberaren babesteko ekipoak edota elementuak ezagutzea modu egokian erabiltzeko.
- Legeak langileak babestu egiten dituela eta enpresak behartu egiten dituela jakitea lan munduan arduratsuki integratu ahal izateko.

OINARRIZKO GAITASUNAK

- Zientzia-teknologia eta osasun-kulturarako gaitasuna
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna
- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.

EDUKIAK

- Istripuak eta lan istripuak
- Gaixotasun profesionalak
- Prebentzioa
- Arrisku motak: etxean, eskolan, kalean, lanean...
- Arriskutsuak diren objektu eta produktuak: argindarra, gasa, garbigarriak...
- Larrialdietako planak
- Seinaleak.
- Babesteko ekipoak: eskularruak, kaskoak...
- Lan arriskuen legea

JARDUERAK

HH-LH 1. ZIKLOA

1. ISTRIPU BAT GERTATZEN DENEAN MINA HARTZEN DA

Materiala: Argazkiak, gelan, eskolan zein kalean dauden irudiak...

Denbora: Lau saio.

Taldekatzea: Talde handia.

Garapena:

1. SAIOA: Gelan

Ø Borobilean jarrita istripuei buruzko elkarrizketa bultzatuko du irakasleak: zer diren, non gertatzen diren, aurreikusi daitezkeen, ez gertatzeko zer egin behar den...

Ø Ondoren, egun normal batean zer egiten duten kontatzeko eskatuko zaie ikasleei: jaiki, gosalduta, eskolara oinez edo kotxez joan, eskolan egiten dena, parkera...

Ø Eremu bakoitzean mina hartzeko edo istripuak izateko ze arrisku duten pentsatu eta azaltzeko eskatuko zaie.

Ø Ondoren, minik ez hartzeko zer egiten dugun pentsatzeko ere eskatuko zaie: eskaileretako barandari heltzen diogu, autoan aulkia eta segurtasun uhala jartzen dugu, bizikletan ibiltzeko kaskoa jartzen dugu...HAU GUZTIA EGITEN DUGUNEAN PREBENTZIOA EGITEN DUGU.

2. SAIOA: Eskolan

Ø Ikasleekin eskolatik buelta bat emango dugu.

Ø Espazio desberdinetan babesteko ze neurri edo arreta deitzeko ze seinale eta irudi erabiltzen diren behatuko da: ez erortzeko barandak, emergentzi irteerak, entxufeak babesteko kutzak, leihoak ez irekitzeko trabak, kulunpioen lurra, jostailuen materialak...

3. SAIOA: Kalean

Ø Ikasleekin auzotik buelta bat emango dugu.

Ø Espazio desberdinetan babesteko ze neurri edo arreta deitzeko ze seinale eta irudi erabiltzen diren behatuko da: obretako heziak, trafiko seinaleak, parketako lurra, zuloak estaltzeko egurrak...

4. SAIOA: Etxean

Ø Ikasleei etxean ze babesteko neurriak erabiltzen diren galdetzeko eskatuko zaie, sukaldean, garajeen, konponketa bat egiten dutenean, produktu arriskutsuekin egiten dena... Gelan komunean jarriko dute

2. OGIBIDEAK

Materiala: Argazkiak, ipuinak.

Denbora: Saio bat

Taldekatzea: Talde handia.

Garapena:

Ø Ikasleei ogibide bati buruz hitz egiten duen ipuin bat kontatuko zaie.

Ø Protagonista babesteko zer arropa erabiltzen duen ohartarazteko eskatuko zaie.

Ø Ondoren ogibide desberdinen irudiak erakutsiko zaizkie banan-banan ogibide bakoitzean zer erabiltzen den ohartaraziz.

LH goi zikloak- DBH

1. ISTRIPUAK ETA HAIEN ONDORIOAK

Materiala: Post-itak, ebakuazio plana, argazkiak, irudiak...

Denbora: Bi edo hiru saio.

Taldekatzea: Banaka, talde txikiak zein handia.

Garapena:

1. SAIOA: Ideia zaparrada

Ø Irakasleak hiru post-it banatuko dizkio ikasle bakoitzari.

Ø Lehenengoan etxean gerta daitezkeen bi edo hiru istripu mota jartzeko eskatuko die, bigarrenean eskolan edo institutuan gerta daitezkeen beste bi edo hiru eta hirugarrenean aisialdian gerta daitezkeenak.

Ø Gelako idazkari bat izendatuko du irakasleak. Post-itak jaso eta ozenki irakurri ondoren hiru zerrenda osatuko dira arbelean.

Ø Irakasleak eztabaida bultzatuko du. Zer da istripu bat?, arruntak dira taldean atera diren istripuak?, zer istripu dira larrienak?, zergatik gertatzen dira?, kasuak ezagutzen al dituzte?, komunikabideetan ateratzen dira?, zergatik?. Zer egin behar da istripu bat gertatzen denean?

Ø Idazkariak zerrendak kopiatuko ditu hurrengo saioetan erabiltzeko.

2. SAIOA: Istripuen zerrendak

Ø Irakasleak gela hiru taldetan banatuko du. Talde bakoitzari zerrenda bat emango dio.

Ø Talde bakoitzak tokatu zaion zerrendan agertzen diren istripuak larritasunaren arabera sailkatuko ditu. (Beste sailkapena maiztasunaren arabera izan daiteke).

Ø Istripu bakoitza prebenitzeko zer egin daitekeen pentsatu eta apuntatuko dute.

Ø Hiru taldeen lanak komunean jarriko dira.

Ø Ondorioak aterako dira: Prebenitzea erraza edo zaila al da?, nori dagokio prebentzioa?, istripuak gertatzen direnean noren ardura izaten da?, istripuak berak zer ondorio ditu?...

3. SAIOA: Ebakuazio plana

Ø Saio honetan eskolari edo institutuari dagozkion arrisku istripuak erabiliko dira soilik.

Ø Ikasleei eskolan edo institutuan dauden irudi zein babesteko elementuak ohartaraziko zaizkie.

Ø Ebakuazio plana istripu larri bat prebenitzeko tresna garrantzitsua dela azalduko da dituen elementu zein irudi ohartaraziz.

2. LAN MUNDUA

Materiala: Argazkiak, internet.

Denbora: Saio bat

Taldekatzea: Talde txikiak zein handia.

Garapena:

Ø Ikasleei ezagutzen dituzten ogibideak zerrendatzeko eskatuko zaie.

Ø Ogibideak arloen arabera sailkatuko dira eta talde txikietan banatuko dira.

Ø Talde bakoitzak egokitu zaion lan sektoreko langileak babesteko zer neurri erabiltzen diren informazioa bilatuko du eta irudiak eskuratzen saiatuko dira (interneten, argazkiak egin, liburutegian...).

Ø Komunean jarriko dira. Ateratako irudi zein argazkiekin horma-irudi bat egin daiteke.

DBH 2. Zikloa- BH- LBH

Etapeta honetan sakontasun maila handiagoa behar da. Taldearen arabera aurreko jarduerak gaiarekin sentsibilizatzeko asmoz egin daitezke. EBAKUAZIO PLANA ezagutzeko ezinbestekotzat jotzen dugu.

1. LAN MUNDUA: istripuak eta gaixotasun profesionalak

Materiala: Internet, orientazio profesionalerako erabiltzen den materiala, gaixotasun profesionalen zerrenda.

Denbora: Bi saio.

Taldekatzea: Talde txikiak zein handia.

Garapena:

1. SAIOA: Gaur egun

Ø Irakasleak lanbide arloen informazioa zabalduko du.

Ø Talde txikitan arloak banatuko dira.

Ø Talde bakoitzak zera aztertuko du: Arlo bakoitza zein ogibiderekiko lotuta dagoen, ogibide bakoitzak zer arrisku dituen, zer gaixotasun sor dezakeen, babesteko zer neurriak erabiltzen dituen. Horretarako irudiak zein informazioa bilatuko dute.

Ø Komunean jarriko da talde txikietan aztertutako informazioa.

2. SAIOA: Historian zehar

Ø Taldea talde txikitan banatuko da.

Ø Talde bakoitzak ezagutzen duen ogibide bat aukeratuko du.

Ø Ogibide horrek historian zehar izan duen garapena aztertuko da. Historikoki erabili diren babesteko neurriak aztertuko dira gaur egun erabiltzen direnekin konparatuz.

Ø Ogibide horren ondorioz gaixotasunak sortzen ziren? Gaur egun sortzen dira?

Ø Komunean jarriko da eta ondorioak aterako dira: garapena nolakoa izan da, gaur egun langileek istripu gutxiago jasaten dute?, gaixotasunak berdinak dira?, gutxitu dira?...

2. LAN ISTRIPUAK

Materiala: Prentsa, Internet.

Denbora: Saio bat.

Taldekatzea: Talde txikiak zein handia.

Garapena:

Ø Irakasleak lan istripuen inguruan bultzatuko du eztabaida: zergatik gertatzen diren, zer ondorio dakarten, aurreikusi daitezkeen...

Ø Talde txikitan azkeneko urtean gertatu diren lan istripuen informazioa bilatuko dute, talde bakoitzak bat aztertuko du: ondorioak zein izan diren, prebenitzeko neurriak hartu ziren, zerbait gehiago egin zitezkeen... Kasurik ezagutzen dute?

3. LEGEA

Materiala: Laneko Arriskuak Prebenitzeko Legea, Internet.

Denbora: Saio bat.

Taldekatzea: Talde txikiak zein handia.

Garapena:

Ø Irakasleak legea aurkeztuko du.

Ø Eztabaida bultzatuko du: Garrantzitsua da legea izatea?, zertarako balio du lege batek?, zein atal iruditzen zaie inportanteen?...

BALIABIDEAK

Ø Ley de prevención de riesgos laborales 31/1995 azaroak,8 (BOE 1995/11/10)

Organismo ofizialak

- Ø www.educacion.navarra.es Lan arriskuak
- Ø www.hezkuntza.net Laneko arriskuak prebenitzeko zerbitzua
- Ø www.osalan.com
- Ø www.institutonavarrodesaludlaboral.es

Baliabide didaktikoak

- Ø Simulakro de emergencia Eusko Jaurlaritza (DVD)
- Ø Erga Primaria
- Ø Erga FP
- Ø www.stee-eilas.org
- Ø www.cucurru.com (HH eta LH)
- Ø www.prevenio.cat (HH eta LH, katalanez dago)

Ipuinak eta istorioak

- Ø “Melanio el barrendero”. Gema Plazas (www.yocrezco)
- Ø “Eta handitzen naizenean, zer?” (Sirena bilduma) Elkar argitaletxea
- Ø “El señor todo azul” Monika Feth. Lumen
- Ø “La gran migración del Masai Mara” Joan Junyent (HH eta LHrako ipuin bilduma) (www.actuatu.com)
- Ø “Isiltasun handia” Joan Junyent (Bhrako) (www.actuatu.com)

Puzleak:

- Ø Ravensburger etxekoa (2x25 eta 2x36)
- Ø Suhiltzaileekin (2x20)

Filmak (BH)

- Ø “En el hoyo” Juan carlos Rulfo
- Ø “Workingman´s death” Michael Glawogger
- Ø “En construcción” Jose Luis Guerin
- Ø “La suerte dormida” Angeles Gonzalez Sinde
- Ø “Síndrome laboral” Sigfrid Mouleón
- Ø “La cuadrilla” Ken Loach
- Ø “El corazón de la tierra” Antonio Cuadri
- Ø “Smoking room” J.D. Wallovits, Roger Gual